

PRENTSA OHARRA

"JEAN HARITSCHELHAR ATARIA" PLAKAREN AGERTZEA

Jean-René Etchegaray Baionako auzapez jauna, hiriko hautetsiak eta Jean Haritschelharren familia bildu dira gaur goizean, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan, Euskal Herriko figura handi bat ohoratzeko: Jean Haritschelhar jauna. Karia horretara, Baionako Euskal Museoaren atariari izena emanen dion plaka agertu dute: "Jean Haritschelhar ataria". 100 urte bete dira euskararen eta euskal kulturaren alde azkarki engaiatu eta bizi osoa eman zuen gizon hura sortu zenetik. Euskaltzainburua izan zen 15 urtez, eta baita Euskal Museoko zuzendari enblematikoa ere. Hona hemen bere biografia laburra.

Jean Haritschelhar 1923ko maiatzaren 13an sortu zen, Baigorriin. Bere sorterrian ikasi zuen lehenik, Baionan gero, eta Akizeko eta Tolosa Okzitaniako irakasleen eskola normalean azkenik. 1952tik 1959ra Ageneko lizeoan irakasle gisa hasi zen lanean. Sorbonan letretako doktoregoa eskuratu zuen 1969an. Euskara eta euskal literaturako irakasle katedra atxiki zuen Bordele III Unibertsitatean, 1962tik 1986ra. Eta, 1988an, Euskal Herriko Unibertsitateak "honoris causa doktore" izendatu zuen.

Unibertsitate-ibilbidea segitzearekin batera, azkarki engaiatu zen euskararen eta euskal kulturaren alde. Hala, Euskal Museoko zuzendari bilakatu zen 1962an, eta urte berean euskaltzain oso izendatua izan zen.

Baigorriko auzapez izan zen ere, hots, bere sorterrikoa, 1971tik 1980ra. Bere adiskide Jean-Louis Davantek, arrazoi guziez, honako izengoiti hau eman zion: Baigorriko Haritza.

Nola ez oroitarazi ere pilotaren munduan utzi zuen herexa. Lehenik, erreboteko jokalariz biziki ona izan zen. Gero, *Pilota* aldizkariaren argitalpena abiatu zuen 1970ean (Euskal Pilotako Frantziako Federazioaren aldizkaria). Jean Haritschelhar izan zen agerkari horren zuzendaria 25 urtez. Azkenik, 1981etik 2009ra, Pilotarien Biltzarreko lehendakari izan zen, pilotarien eta pilotazaleen erreferentziazko elkartearen buru.

Euskal Herriak gogoan ditu Jean Haritschelharren idazle-ibilbidea, ahozko eta idatzizko literaturaren arloan hark egindako ekarpen garrantzitsuak eta Euskaltzaindian garatutako ikerketa-proiektuak. *Herria* astekarian ere rol garrantzitsua izan zuen. Agerkari horrek euskara zabaltzeko euskarri garrantzitsua izaten segitzen du gaur egun, bereziki Iparraldean. Euskaltzainburua izan zen Jean Haritschelhar, 15 urtez. Eta bere bizi osoan parte hartu zuen, deliberatuki, euskararen zoria hobetzen Iparraldean.

Erran behar da Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako probintzietatik erregulariki jalgi direla Euskaltzaindiari euskaltzain bilakatzeko behar diren ezaugarri eta baldintzak betetzen dituzten pertsonalitateak; adibidez, berrikitan, Itxaro Borda.

Plaka honen agertzearen kariatara, Jean-René Etchegaray jaunak oroitarazi nahi izan du Jean Haritschelharrek «Euskal Herri osoaren alde lan egin zuela. Konbentzita zen euskara zela euskaldun guzien arteko egiazko lotura. Segur zen, halaber, hizkuntzaren kalitatearen erronka funtsezkoa zela, hura baita hizkuntza bat salbatzeko borroka nagusia, baina baita gizakiak elkarren artean behar bezala komunikatzeko borroka ere».

Arrazoi horiengatik, Yves Ugaldek zuzentzen duen toponimia-batzordearen proposamenari jarraikiz, Baionako hiriak ohoratu nahi izan du euskararen eta euskal kulturaren alde bizia eman zuen figura handi horren oroimena, hiriko leku enblematiko bati –Baionako Euskal Museoaren atariari– haren izena emanez: Jean Haritschelhar ataria.

Jean Haritschelhar eragile oso garrantzitsua izan zen Euskal Herriko historia kolektiboan. Hemendik aitzina, bere izena Ipar Euskal Herriko hiriburuko eremu publikoan agertuko da. Hura sortu eta ehun urte geroago, eta hura zendu eta hamar urte berantago, Baionak merezitako omenaldia egin dio Jean Haritschelharri. Eta omenaldi horrek oso oihartzun berezia du gaur, abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan.

Baiona Hiriko prentsa-harremanak - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr